




HIZKERA
INKLUSIBOA
gida



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO



HIZKERA
INKLUSIBOA
gida



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO



Eusko Legebiltzarra / Parlamento Vasco
Becerro de Bengoa, z/g
Vitoria-Gasteiz

1. Edizioa


2022ko urtarrila

Izena duenak izana du

Izena duenak izana du, diosku euskal tradizioak. Esaera horrek gogorarazten digu hizkuntza kulturaren adierazpena dela, kulturaren beraren emaitza, alegia. Eta, aldi berean, hizkuntzak pentsaera baldintzatzen duela eta eragina duela inguratzen gaituen munduari buruzko ikuspegian eta interpretazioan. Interpretazio horretatik abiatzen gara pertsonak erabakiak hartzeko eta jarduteko; halaber, gure portaerak eragina du gizartean nahiz bere kulturean. Hizkuntzatik kulturara igarotzen dena atzera berriro itzultzen da hizkuntzara: espiral handi baten aurrean gaude. Gertakari hori unibertsala da, pertsona, hizkuntza eta kultura ororentzat balio duena.

Gogoeta horretatik abiatuta, hizkera inklusiboari erreparatu diogu, haren xedea baita, batetik, errespetu berarekin tratatzea gizartea osatzen dugun guztiak, eta, bestetik, ez ahaztea, gutxiestea edo laidotzea ezein pertsona edo talde. Hizkera inklusiboaren erabilera badu berebiziko garrantzia hizkuntzaren eta kulturaren elkarrekiko erlazioa diskriminaziorik ezaren printzipioan oinarritzen duelako eta, ikuspegi horretatik, harremanen eta komunikazioaren arauak eraldatzea ahalbidetzen duelako, pertsonen arteko tratu-berdintasuna bermatzea helburu delarik.

Alde horretatik, Eusko Legebiltzarreko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Planaren garapenean, euskararako eta gaztelaniarako sortu ditugun gida hauen bidez beste urrats bat egiten da hizkera inklusiboaren erabilera normalizatuaren alde, egokiro tratatuak eta gizartean ikusaraziak izan daitezen bereizkeria jasan dezaketen kolektibo guztiak. Hori dela eta, hainbat ardatz hartu dira aintzat, hala nola generoa, desgaitasuna, heteronormatiboaz bestelako identitate edo orientazio sexualak eta etnia, jatorri edo ezaugarri fisiko jakin batzuk izatea. Gidak indar berezia jartzen du kolektibo horietako emakumeengan, diskriminazio-ardatz batek baino gehiagok eragiten baitie. Azken finean, gida hauek tresna erabilgarriak izatea nahi da, hain zuzen ere berdinzalea izan gura duen eta izan behar duen gizarte batentzat.



Bakartxo Tejeria Otermin

EUSKO LEGEBILTZARREKO LEHENDAKARIA

Aurkibidea

Sarrera	8
Hizkera inklusiboa eta generoa	10
Testuingurua	10
Gomendioak, aukerak eta mugak	10
Generoa lanbideetan	11
“Dvandva” hitz-elkartek	14
Giza erroa duten hainbat hitz	15
Beste hitz markatu batzuk	15
Jauzi semantikoak	17
Laburbilduz	18
Ez erabili <i>gizon</i> hitza <i>gizaki</i> adieran	18
Lanbideak, karguak, zereginak eta abar	18
Egin ikusgai bi generoak	18
Ez agerrarazi emakumeak soilik inoren bikotekide edo senide gisa	19
Hitz-elkarteetan osagaien ordena aldatu	19
Saihestu zenbait hitz edo esapide markatu	19
Hitanoa erabiliz gero, ondo erabili noka eta toka	20
Hizkera inklusiboa eta desgaitasunen bat duten pertsonak	21
Gomendioak, aukerak eta mugak	21
Laburbilduz	23
Desgaitasuna ezaugarri bat da	23
Ez erabili kutsu peioratiboa, ezkorra edo iluna duen esapiderik	24
Kontuz zenbait esapiderekin	24
Ez erabili <i>normalak</i> desgaitasunik ez duten pertsonak izendatzeko	24
Beste adierazpide batzuk	25
Egin ikusgai emakumezkoak	25
Hizkera inklusiboa eta LGTBIQ+ kolektiboa	26
Oinarrizko kontzeptu batzuk	26
Gomendio orokorrak	29

Hizkera inklusiboa eta etnia, ezaugarri fisiko eta jatorri jakin batzuetako gizataldeak	30
Oinarrizko kontzeptu batzuk	30
Gomendio orokorrak	33
Bi hizkuntza ofizialetan jardutearen berezitasunak	34
Gaztelaniaren interferentzia	36
Generoa: modu orokorrean edo markatuta	36
Euskaratik gaztelaniarako interpretazioa	39
Bibliografia	40

Sarrera



Eusko Legebiltzarraren gida hau hizkera inklusiboa eguneroko jardunean erabiltzeko tresna bat da. Hizkuntzaren ohiko erabilera batzuk berrikusten dira bi hizkuntza ofizialetan, euskaraz zein gaztelaniaz, eta hizkuntza errespetuz eta modu kontzientean erabiltzeko proposamenak egiten dira. Legebiltzarrean erabiltzen den hizkeran oinarrituta daude, eta, azalpen bidez zein eskematikoki, birformulatu egiten dira zenbait gizataldetako pertsonak aitatzeko desegokiak diren edo pertsona horiei buruz ideia eta estereotipo negatiboak helarazten dituzten hizkuntzaren molde batzuk.

Gida honetan, bada, hizkera inklusiboa erabiltzeko jarraibideak aurkituko dira eta, horretarako, hainbat gizataldetako ikuspegia, gizartearen sentiberatasuna eta gramatikaren arauak aintzat hartu dira. Hartara, emakumeen eta gizonen berdintasunaren ikuspegitik bildutako adibideak jasotzeaz gain, desgaitasunen bat duten pertsonak, LGTBIQ+ kolektiboko pertsonak eta hainbat etnia, ezaugarri fisiko eta jatorritako pertsonak ikuspegi inklusibo batetik aipatzeko adibideak ere ematen dira.

Legebiltzarreko I. Berdintasun Planaren barruan, elkarlanean aritu dira Berdintasun, Aniztasun eta Berrikuntza Arloa eta Itzulpen Zerbitzua gida honetako oinarrizko edukiak eta proposamenak ontzen, eta Eusko Legebiltzarrean bateko eta besteko



ardurak dituzten emakumeen eta gizonen ekarpenei esker kontrastatu eta antolatu dira. Izan ere, gida hau, orain daukan forma honetan, abiapuntu bat da, eta etengabe hobetzen eta fintzen joan behar luke, gizartean eta hizkuntzaren erabileran gertatzen den bilakaerari erreparatuta eta Legebiltzarrean dihardugun guztion ekarpenez baliatuta.

Azkenik, azpimarratu nahi dugu gida honen edukiak erreferentziazko hainbat lanen bilketaz landu direla, ahal izan den guztietan iturri horietan aurkitutako irizpideak eta funtsezko ideiak testuinguru parlamentariora aplikatuta. Gidaren azken atalean zerrendatzen dira erreferentzia gisa baliatu ditugun dokumentuak. Bihoazkie gure aitortza eta esker ona bidegile izan diren lan horien sortzaileei.

Hizkera inklusiboa eta generoa



Testuingurua

Emakumeen egoera behar bezala aintzat hartzea eta hizkuntzaren bidez egoki islatzea bereziki garrantzitsua da hizkera juridiko-administratiboan; izan ere, gizartearen eta legearen eskakizunei erantzunez, herritarrei berdintasunezko tratua emateko betebeharra dagoen testuinguruetan erabiltzen da hizkera espezializatu hori (Moreno Cabrera, 2012). Bestetik, honela dio Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak, 18.4 artikuluan: “Euskal herri-aginteez ez dute hizkera sexista erabiltzeko, ez zuzenean, ez beste pertsona edo erakunde batzuen bitartez sortzen dituzten dokumentuetan eta euskarrietan”.

Gomendioak, aukerak eta mugak

Euskara ez da genero-hizkuntza, baina baditu bideak generoak bereizteko, eta aurki daitezke, orobat, hizkuntzaren erabilera sexistaren aztarnak. Atal honetan, aztarna horien artean nabarmenenak azaltzen dira, bai eta erabilera horietan oharkabea ez jausteko zenbait gako eman ere.



1. **Generoa lanbideetan.** Esan bezala, euskarak ez du, oro har, generorik markatzen izen arruntetan, baina baditu bideak generoak bereizteko. Adibidez, *gizon/emakume, seme/alaba, izeba/osaba, alargun/alarguntsa, jainko/jainkosa, zaldi/behor* edo *katar/kateme*. Zenbait lanbide edo zeregin izendatzerakoan, badaude generoaren arabera bereizten diren zenbait izen, hala nola *maisú/maistra*. Tradizioan, *idazlesa, medikusa* eta antzeko batzuk ageri dira, baina halako gutxi dago Euskaltzaindiaren Hiztegian onartuta, eta, ageri badira, *artzain/artzaintsa* esaterako, *lpar.* markarekin ageri dira.

Bestalde, Euskaltzaindiaren Hiztegian badaude *legegizon, elizgizon, armagizon, gudadgizon, itsasgizon* edo *bulegogizon*, baina ez dago parekorik emakumeen kasurako. **Hutsune lexikoa** dago, beraz. *Plazagizon* ere talde horretan sartzekoa izango zen, baina berriki *plazandre* sartu da Euskaltzaindiaren Hiztegian, zalantzarik gabe azken urteotan emakumeek eremu publikoan hartu duten lekuaren isla.

Itxurazko bikote diren hitzak ere ageri dira euskaraz (antzeria eratutako hitzak izanik ere, erabilera edo esanahi asimetrikoa agertzen denean bi generoen artean). Halakotzat jo daitezke, adibidez, *gizagaldu* (gizon galdua, gaiztakeriari emana) eta *emagaldu* (prostituta), eta mugan leudeke, orobat, *etxeakoandre* eta *etxejaun* edo *etxejo jaun*.



etxeakoandre: Etxea zuzentzen duen emakumea, gehienetan familiako ama. (...) *Ez dago inon euskal etxeakoandrea bezalakorik jan-edana ugari jartzen.*

Etxeko jaun: Etxearen buru den gizonezkoa, gehienetan familiako aita. Ik. etxejaun. *Herriko buruzagi eta etxeako jaunak.*

jaun: Zerbaiten edo norbaiten gainean erabateko eskua duen gizonezkoa. *Zeruko eta lurreko erregea eta jauna delako. Zure anaiei jaun izan zaitez. Nire bihotzeko jauna. Senar duenak jaun du (esr. zah.).*

*Oharra: azpimarrak geureak dira.

Asimetria nabaria da, orobat, *nagusi-etxeakoandre* hitz-elkarteko osagai bakoitzari erreparatuz gero:

nagusi-etxeakoandre pl. Etxeko jauna eta etxeakoandrea; (...). *Zaharrak eta nekatuak aurkituko dituzu Azkarragako nagusi-etxeakoandreak.*

- **Nagusi:** 1 iz. Etxeko burua; zenbait erakunde edo talderen burua; lantegi edo fabrika bateko jabea; jabea. (...) *Gizona emaztearen jaun eta nagusi izateko.*

Ikus daitekeenez, asimetria dago adieretan, definizioak emateko moduan, eta jasotzen diren adibideetan.

Genero-markarik gabeko hizkuntza batean, eskatzen zaigunean abokatu bat irudikatzeko, edo zirujau bat, edo suhiltzaile bat, gehienok gizonezko bat irudikatzen dugu. Garbitzaile bat irudikatzeko eskatzen digutenean, edo erizain bat, emakumezko bat irudikatzen dugu gehienok. **Genero-kutsadura** esaten zaio horri

Aurrekoak albo batera utzita, euskaraz ez da genero-desinentziarik erabiltzen lanbideak edo zereginak izendatzeko izen gehien-gehienetan, inguruko hizkuntza erromanikoetan ez bezala. Hori abantaila da, ez baitugu hitzak zertan bikoiztu generoak aintzat hartzeko, gaztelanian eta frantsesean gertatzen den bezala: *lehendakari, legebiltzarkide, abokatu...* diogunean, gizonezkoak zein emakumezkoak izendatzen ari

gara, berdin-berdin. Berebiziko garrantzia du horretaz jabetzeak. Izan ere, gaiak baditu hasiera batean dirudien baino ertz gehiago. Hona hemen ertz horietako batzuk:

Zenbait ikerlarik agerian utzi dutenez, genero-markarik gabeko hizkuntza batean eskatzen zaigunean abokatu bat irudikatzeko, edo zirujau bat, edo suhiltzaile bat, gehienok gizontzako bat irudikatzen dugu. Garbitzaile bat irudikatzeko eskatzen digutenean, edo erizain bat, emakumezko bat irudikatzen dugu gehienok. **Genero-kutsadura** esaten zaio horri (White, Alvarez-Uriak aipatua, 2004). Alegia, izendapenak ez du, berez, "generorik", baina azpian dagoen kontzeptuak, hiztunak barneratuta daukan moduan, bai.

Hori dela eta, erakunde batzuek, hala nola Gipuzkoako Foru Aldundiak, aldeztu dute komeni dela bi generoak bistaratzea, nahiz eta euskarak beharrik izan ez, lan-arloan bereizkerian oinarritutako asoziazio horiek haustearren, adibidez suhiltzaileak eta erizainak kontratatzeke deialdietan (Orebe, 2011):

Suhiltzaile-lanposturako oposaketen deialdia ireki da, gizon eta emakumeentzat.

Emakume eta gizon erizainak kontratatuko dira.

Antzeko bide bati jarraitu izan diote, besteak beste, Euskotrenek eta Dbusek, tren-gidariak eta gidari-kobratzaileak hautatzeko. Adibide horietan oinarrituta, honela eman litezke halako iragarpenak:

Tren-gidari lanposturako oposaketen deialdia ireki da, gizon eta emakumeentzat.

Dbusek emakume eta gizon gidari-kobratzaileak kontratatuko ditu.



Haatik, hala egiteak badu, horrek ere, alde txar bat; izan ere, genero-binarismoan erortzen baikara (ikus LGTBIQ+ atala).

Bestalde, beharbada genero-kutsadura horri aurre egin nahian edo, joera izaten dugu gizonezkoei dagokiena neutro gisa emateko, eta emakumezkoena, berriz, markatu gisa:

Batzordeko lehendakariak (gizona denean) vs *Batzordeko lehendakari andreak* (emakumezkoa denean).

Lanbideak adierazteko euskarak maileguz hartu dituen zenbait hitzetan (*filologo, notario, arkitekto, presidente...*), litekeena da zailagoa izatea femeninoa ere barne hartzen dutela irudikatzea; beharbada horregatik jotzen dugu femeninoa markatzera. Adibidez, oso ohikoa da *presidenta andrea* entzutea; baina ez da zuzena, *presidente andrea* behar bailuke. Alegia, *presidente* hitza, gaztelaniatik maileguz hartua, gizonak zein emakumeak izendatzeko da, ez ditugu *presidente* eta *presidenta* mailegatu behar, euskarak ez baitu generoa markatzen, edo ez horrela, behintzat.

Legebiltzarraren jarduna ele bitan gauzatzen da. Generoaren ikuspegitik hain desberdin jokatzen duten bi hizkuntza izanik euskara eta gaztelania, garrantzitsua da ez lerratzea, oharkabea, hizkuntza bakoitzean naturalak ez diren esapideetara, beste hizkuntzaren eraginez. Halako kasu batzuk aztertzen dira gida honen azken atalean, "Bi hizkuntza ofizialetan jardutearen berezitasunak" izenekoan.

Arau orokorra, beraz, hau litzateke: euskaraz lanbide eta zereginen izendapenak neutroak dira, eta ez da beharrezkoa femeninoa edo maskulinoa markatzea, non eta ez ditugun berariaz bistaratu nahi, edo ez gaituen testuinguruak zentzu batean edo bestean markatzera behartzen.

Azken ideia bat atal honetan: ohikoa da emakumezkoa gizonezko erreferente baten emazte, bikotekide, ama edo alaba gisa soilik izendatuta ikustea (*Urkullu lehendakaria eta emaztea, alkatea eta haren emaztea*). Begiruneagatik, emakumezko hori izen-abizenez izendatzea komeni da. Gauza bera, bikotekidea gizonezkoa bada, edo bestelako senideren bat.

2. Hizkuntzalaritzan badira "**dvandva**" (sanskritoa) tipologian sartzen diren **hitz-elkarketak**: *seme-alaba, jaun-andre, gizon-emakume, neba-arreba, anaia-arreba, nagusi-etxeakoandre, aitona-amona, errege-erregina, maisu-maistra* eta halakoei esaten zaie dvandva hitz-elkarte. Horrelako bikoteetako hitzen ordenak ez du zerikusirik generoarekin (nahiz eta adibide horietan maskulinoa agertu aurrena). Arrazoi fonetikoengatik daude hurrenkera horretan, hau da, silaben kopuruak agintzen du: osagai laburrena jartzen da lehena, eta luzeena ondoren. Horregatik esaten da, adibidez, *atso-agure*, eta ez *agure-atso*. Bi osagaiek luzera bera dutenean neurriaren araua ez da aplikatzen, eta, hortaz, badaude femeninoa lehena ageri duten forma batzuk: *andre-gizon, neska-mutil, neskato-mutiko...* Hori dela eta, proposatu izan da, joera nagusia orekatze aldera, bi osagaiek silaba kopuru bera dutenean, ordena tartekatzea, eta, aldian behin, femeninoa jartzea aurrena: esate baterako, *amama-aititek*.



3. *Giza* erroa duten hainbat hitz.

Adituek diotenez, tradizioz, *gizon* hitzetik datoz *gizaki*, *gizarte*, *gizalege* eta beste hainbat. Hori dela eta, eragile batzuek *jendarte* hitzaren aldeko apustua egin dute, *gizarte* baztertuta. Haatik, hainbat hizkuntzalarik eta eragilek (besteak beste Emakundek edo Berria taldeak), *giza* erroak ez ezik, *gizaki* edo *gizarte* hitzek egindako bidea azpimarratzen dute, eta haien alde egiten. Hala gertatzen da Legebiltzarrean ere.

Nolanahi ere, argi dago ez dela egokia *gizon* hitza *gizaki* adieran erabiltzea, alegia gizonak eta emakumeak, biak barne hartzeko adieran:

Euskal Herriko lehen *gizona* > Euskal Herriko lehen *gizakia*

Azpimarratzekoa da Euskaltzaindiaren Hiztegian *gizon* hitzaren lehen adiera “gizaki arra” dela, eta bigarrena, berriz, “gizakia”. *Gizon* hitzak badu, gainera, beste adiera bat (3 iz. *Gizona*, *adorearen*, *ausardiaren* eta *dagozkion gainerako tasunen jabetzat hartua*. *Etor hona, gizona bazara!*), *emakume* edo *andre* hitzetan parekorik ez duena.

Supergizon ere ageri da, *supergizaki* adieran: “Gizakiaren ahalmenen gaineko ahalmenak dituen gizakia. *Hemen inor ez gara supergizonak*”. *Supergizaki* ez da ageri, ezta *superremakume* edo *superrandre* ere.

4. **Beste hitz markatu batzuk.** Badira genero-ikuspegitik markatuak diren zenbait hitz, zentzu orokorrean erabiltzen ditugunak. Hona hemen adibide batzuk:

- a) *Jaun eta jabe* esapidea. Zerbaiten edo norbaiten gainean erabateko nagusitasuna edo aginpidea duen pertsona edo gauza.
- b) *Gizonki*: adb. Gizonari dagokion moduan. Ik. gizon 5. *Gizonak gizonki. Gizonki jokatu zuen.*
- c) *Maisulan*: Bere bikaintasunagatik ereduazkoa gertatzen den lana.
Maisuki: Maisutasunez.
Maisutasunez: Maisuari dagokion trebetasuna.
- d) *Anaiarte*: Anaitasun loturaren batek biltzen dituen [pertsonen] elkarte, kideen interes komunen alde egiten duena. *Asisko Frantziskoren hasierako anaiarte xumea ordena handi bilakatzen ari zen. Anaiarte ederra osatzen dute.*
anaiarteko 1 adj. Anaitasunezkoa. *Anaiarteko bazkaria. Anaiarteko giroan.*
 2 adj. Senideen artekoa. *Anaiarteko gerra, borroka, gorrotoa.*
Anaitasun: Edozein arrazoiengatik familia batekoak sentitzen direnak batzen dituen lotura. *Herritar guztiak elkarrekin daudela anaitasun handian. Euskaldun guztion anaitasuna nolabait erakustearren. Anaitasun lokarria.*
Anaitu: Anaitasun loturaren batez elkartu. *Hala anaitu zen gurekin. Amodioak anaitzen gaitu gizon guztiok. Hemengo euskaldunak eta hangoak, denon etxearen defentsan anaiturik.*
 **Ahizpatasun* hitza ageri da Elhuyar hiztegian (1. iz. condición de hermana; hermandad [entre mujeres]. 2 iz. Sororidad); Euskaltzaindiaren Hiztegian, ez.
- e) *Emeki*: Emetasunez, leunki; geldiro. Ik. poliki; astiro; baratxe. *Emeki eragin. Emeki mintzatu, erantzun. Andreek berez poliki eta emekiago hitz egiten dutela.*
- f) *Txapeldun* eta *txapelketa* hitzak ere markatuak dira, tradizioari erreparatuz gero.
 1 iz. Txapelketa edo lehiaketa baten irabazlea. *Uztapide atera zen txapeldun. Gaur egunean bera baitugu aizkolarien txapeldun. Errezilgo Uzkudun, Paulino, zu zara Europan txapeldun. Hori da, askoren eta nire ustez ere bai, gure idazle guztien artean txapeldun.*
 2 adj. Txapela daramana.

Hitz eta esapide horien kasuan, hainbat aukera zabaltzen zaizkigu:

- Neutroagoa den sinonimo batera jo daiteke. Adibidez, *gizonki jokatu* esan ordez, *ausardiaz* edo *adorez jokatu* esan daiteke, edo testuinguruari ondo egokitzen zaion antzeko beste esapideren bat erabili.
- Hitza edo esapidea moldatu, emakumezkoentzat baliagarri egiteko moduan. *Plazandre* hitzaren sorrera eta hedapena izan daiteke adibide bat, baina badaude gehiago. Hona hemen sarean aurkitutako adibide batzuk:

Karmele Jaio maistra da literatura mota hau egiten. Mesanotxearen gainean eduki eta lantzean behin zabaldu, maistra-lanaz gozatzeko. Horra nire proposamena!

Eibar armagintza industrian iaioa bada ere, donostiarrak artilleria astunaren andre eta jabe garela erakutsi genuen (Termas Bera Bera eta Eibar errugbi-taldeen arteko partidaren kronika).



- Hitza edo esapidea bere horretan hartu, eta adieraz jabetu: hori gertatzen ari da, besteak beste, *txapeldun* eta *txapelketa* hitzekin, kirolean eta beste arlo batzuetan emakumezko erreferenteak ugaritu ahala.

Maialen Lujanbio hernaniarra nagusitu da aurtengo txapelketan, baita BECeko finalean ere.

5. **Jauzi semantikoa.** Termino bat erabiltzen da generikoa dela aditzera emanda (emakume zein gizonentzat), eta aurrerago, berriz, generikotik espezifikora pasatzen da hizlaria.

Euskal politikari nagusiak bildu dira gaur Gasteizen, batzuek beren emazteak lagun dituztela.

Emaizta bikainak izan dituzte euskal futbol-taldeek asteburu honetan. Nesken taldeek, berriz, emaitza gazi-gozoak izan dituzte.

6. **Hitanoaren erabilera.** Hitanoan, noka hitz egiten dugu emakume bati zuzentzen gatzaizkionean (*aurkez ezan*) eta toka, gizonezko bati ari gatzaizkionean (*aurkez ezak*). Erabilera desegokiak lirateke honako hauek:

- Toka egitea emakume bati. Gizonezko bati noka egitea ere, jakina, okerra da.
- Toka edo noka egitea orokorrean, gizon-emakumez osaturiko talde bati, maskulinoa edo femeninoa orokor gisa hartuta.

Nolanahi ere, erregistro informalean erabiltzekoa denez hitanoa, leku urria du testuinguru parlamentarioan.

Hizkera ez-sexista zenbait jarraibide eta gomendio:

1. Gizon ≠ gizaki

 INKLUSIBOA	 EZ HAINBESTE
– Gizakiak ilargia estreinakoz zapaldu zuenean.	– Gizonak ilargia estreinakoz zapaldu zuenean.

2. Lanbideak, karguak, zereginak eta abar: Ez erabili izendapen markaturik, testuinguruaren arabera beharrezkoa ez bada. Gogoratu euskaraz lanbide eta zeregin gehienak neutroak direla.

 INKLUSIBOA	 EZ HAINBESTE
– Legelari, kirolari... – Legelari batek aurkako helegitea aurkeztu du. – Kirolari batek positibo eman du. * Testuinguruak agintzen du noiz den beharrezkoa generoa adieraztea euskaraz, baina aintzat hartu ez dagoela zertan beti femeninoa markatu.	– Legegizon, emakumezko kirolari... – Legegizon batek aurkako helegitea aurkeztu du. – Emakumezko kirolari batek positibo eman du. * Generoa markatzea esanguratsua ez denean.

3. Beharrezkoa bada, bi generoak ikusgai egiteko bideren bat erabili.

 INKLUSIBOA	 EZ HAINBESTE
Tren-gidari lanposturako oposaketen deialdia ireki da, gizon eta emakumeentzat (testuaren pasarte batzuetan).	Tren-gidari lanposturako oposaketen deialdia ireki da (testu osoan).

4. Ahal dela, **saihestu** emakumezkoak soilik inoren emazte, bikotekide, ama edo alaba gisa aurkeztea.

 INKLUSIBOA	 EZ HAINBESTE
Urkullu lehendakaria, Lucia Arieta-Araunabeña emaztearekin batera, sari-banaketan izan zen.	Urkullu lehendakaria eta emaztea sari-banaketan izan ziren.

5. Nahi izanez gero, eta beti ere silaba-kopuru bera badute, *aitona-amona* erako hitz-elkarteetan osagaien ordena aldatu daiteke noizean behin.

 INKLUSIBOA
amona-aitonak andre-gizonak...

6. Aintzat hartu **tradizioz zenbait hitz markatuak** direla euskaraz, eta beste aukera batzuk ere badirela.

 INKLUSIBOA	 EZ HAINBESTE
– Andre eta jabe – Lan bikaina – Ederki, bikain – Irabazle – Herri senidetua – Lagunarte, kidego... – Ausart, ausardiaz, adorez... – Poliki, astiro, mantso...	Testuan zehar behin eta berriz horrelako esapideak soilik erabiltzea: – Jaun eta jabe – Maisulan – Maisuki – Txapeldun – Herri anaitua – Anaiarte – Gizonki – Emeki

7. Hitanoa erabiliz gero, ondo bereizi noka eta toka tratamenduak.

 INKLUSIBOA	 EZ HAINBESTE
– Emakumeei noka (<i>aurkez ezan</i>) eta gizonezkoei toka (<i>aurkez ezak</i>) (testuinguru ez-formaletan soilik)	– Emakumeei toka egitea (<i>aurkez ezak</i>) – Gizonei noka egitea (<i>aurkez ezan</i>) – Gizon eta emakumez osaturiko talde bati toka edo noka egitea.



Hizkera inklusiboa eta desgaitasunen bat duten pertsonak



Gomendioak, aukerak eta mugak

Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioaren arabera, *desgaitasuna duen pertsona* terminoak barne hartzen ditu urritasun fisiko, mental, intelektual edo sentesorialak dituzten pertsonak, inguruko oztopoekiko interakzioen ondorioz mugak eta eragozpenak dituztenak oinarritzko jarduerak betetzeko eta gizartean osoki eta eraginkortasunez parte hartzeko, gainerakoekiko baldintza-berdintasunean.

Termino gomendatua: desgaitasuna duen pertsona edo desgaitasunen bat duen pertsona

Euskaraz, denboran zehar, hainbat termino eta esapide erabili dira kontzeptu hori adierazteko, hala nola *elbarri(tu)*, *ezgai(tu)*, *desgai(tu)*, *ezindu*, *gaigabe(tu)*, *minusbaliatu*, *minusbaliadun*, *urritu*, *ahalmen urriko*, *gutxitu* eta abar.

Egun, *desgaitasuna duen pertsona* edo *desgaitasunen bat duen pertsona* da termino gomendatua. Hala ebatzi zuen Terminologia Batzordeak normalizazio-txosten batean, eta hala ageri da Euskaltermen, Mendekotasunaren Hiztegian eta UPV/EHUren Hiztegi Juridikoan, adibidez. *Pertsona desgaitu* ere ageri da, baina, desgaitasunen bat duten pertsonak ordezkatzeko dituzten elkarteetan esanetan, egokiago da adieraztea pertsonak desgaitasun bat *duela*, eta ez pertsona bere osotasunean izendatzea bakar-bakarrik desgaitasunaren ezaugarria oinarri hartuta. Are okerragoa da *desgaitu* izen moduan erabiltzea, *pertsona* kenduta. Haatik, Euskaltzaindiaren Hiztegian, *desgaitasun* hitza ez da ageri, eta *desgaitu*, bai.

Bestalde, desgaitasunen bat duten pertsonen elkarte batzuek adierazi dutenez, ahal denean komeni da desgaitasuna duten emakumeei ikusgaitasuna ematea, *pertsonak* izendapen generikoak askotan are ikusezinago egiten baitu gizatalde hori, eta aintzat hartu behar da bereizkeria eragin ohi duten bi arrazoi batera biltzen direla haiengan (intersektionalitatea). Hala, testuetan honako hauek tartekatzea gomendatzen dute: *desgaitasuna duten emakumeak*, *desgaitasuna duten gizon-emakumeak* edo, are, *desgaitasuna duten emakumeak eta gizonak*.

Garrantzitsua da bereiztea testuinguru orokor batean desgaitasunen bat duten pertsonak izendatzeko erabiltzen diren termino eta esapideak, batetik, eta haien egoera administratiboari erreferentzia egiteko erabiltzen direnak, bestetik. Egoera administratiboari erreferentzia egiterakoan, indarrean diren legeetan jasotako terminoak erabili behar dira ezinbestean. Eta legeetan, oraindik ere, *minusbalotasun*, *urritasun/urritu*, *ezintasun/ezindu* eta halakoak ageri dira.

Azken legeetan terminologia aldatu egin da. Gaztelaniaz, adibidez, lehen *certificado de minusvalía* zena *certificado de discapacidad* da egun. Haatik, euskaraz batera dabil-tza *elbarritasun-ziurtagiria*, *ahalmen-urritasun ziurtagiria* edo *desgaitasun-ziurtagiria*. Azken termino hori, adibidez, ez da ageri ez Euskaltermen, ez Mendekotasunaren Hiztegian.

Bestalde, zenbait eragile sozial edo politikok *aniztasun funtzional*, *gaitasun desberdinak dituzten pertsonak*, *bestelako gaitasunak dituzten pertsonak*, edo *desgaitasun-egoeran dauden pertsonak* proposatu eta erabiltzen dituzte. Ekarpenean interesgarriak dituzten arren, badira kontra azaldu diren beste eragile batzuk. Eufemismoak direla argudiatzen dute, eta are gehiago zailtzen dutela bestela ere nekez eskuratzen dituzten eskubideak egikaritu ahal izatea. Iritzi horretakoak dira, adibidez, Cocemfe edo Plena Inclusión elkarteak.

Azkenik, ez da komeni medikuntzaren arloko termino eta esapideak bestelako testuinguruetan modu "metaforiko" edo espresiboan erabiltzea, hala nola *eskizofrenia* terminoa egoera kaotiko, irrazional edo bitxiak adierazteko. Izan ere, zenbait pertsonaren gizarte-irudiari kalte egin diezaioke, eta haien egoera estigmatizatzeraz jo.

Desgaitasunen bat duten pertsonak zenbait jarraibide eta gomendio:

1. Pertsonak *duen* ezaugarri bat da desgaitasuna, eta ez bakarra. Ez erabili kutsu peioratiboa duen hitzik.

 INKLUSIBOA	 EZ HAINBESTE
– Desgaitasuna duen pertsona, desgaitasunen bat duen pertsona – Desgaitasun fisiko/organikoa duen pertsona – Desgaitasun fisikoa/ intelektuala/ psikosoziala duen pertsona, zentzumen-desgaitasuna duen pertsona, desgaitasun sentSORIALA duen pertsona – Ikusmen-desgaitasuna /ikusteko desgaitasuna duen pertsona, pertsona itsua, ikusmen murriztua duen pertsona – Entzumen-desgaitasuna/entzuteko desgaitasuna duen pertsona, pertsona gorra, entzumen-eskasia/ entzumen-urritasuna duen pertsona... – Epilepsia / hemiplegia / eskizofrenia duen pertsona – Mendetasun-egoeran dagoen pertsona / mendekotasuna duen pertsona – Osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonak, nahasmendu mentala duten pertsonak	– Pertsona desgaitua, desgaitua – Elbarria, ezindua, urritua, perlesiaduna... – Paralitikoa... – Itsua, gorra... – Gormutua – Epileptikoa, tetraplegikoa, eskizofrenikoa... – Mendeko pertsona – Gaixo mentalak, buruko gaixotasunen bat duten pertsonak

2. Ez erabili kutsu peioratiboa, ezkorra edo iluna duen esapiderik.

 INKLUSIBOA	 EZ HAINBESTE
– Eskizofrenia du – Gurpil-aulkia erabiltzen du, gurpil-aulkiaren erabiltzaile da, gurpil-aulkian dabil, gurpil-aulkia behar du... – Osasun mentaleko zentro batean ospitaleratu dute	– Eskizofreniak jota/erasanda dago, eskizofreniaren biktima da – Gurpil-aulki batera lotuta bizi da – Eroetxe/psikiatriko batean sartu dute

3. Kontuz zenbait esapiderekin, kaltegarriak izan daitezke-eta.

 INKLUSIBOA	 EZ HAINBESTE
– Badirudi kontraesan politiko betean bizi garela. – Kulturaren egoera? Nahasia!	– Badirudi eskizofrenia politikoan bizi garela. – Kulturaren egoera? Eskizofrenia! – Desgaitasuna, nahasmendu mentala edo halakoak aipatzea, testuinguruan esanguratsua edo beharrezkoa ez bada.

4. Ez erabili *normalak* desgaitasunik ez duten pertsonak adierazteko.

 INKLUSIBOA	 EZ HAINBESTE
– Desgaitasunen bat duten pertsonak zailtasun handiagoak dituzte lana aurkitzeko beste pertsonak/ gainerako pertsonak/desgaitasunik ez duten pertsonak baino	– Desgaitasunen bat duten pertsonak zailtasun handiagoak dituzte lana aurkitzeko, pertsona normalek baino

5. Beste adierazpide batzuk.

 INKLUSIBOA	 EZ HAINBESTE
- Desgaitasunen bat duten pertsonen taldea/gizataldea - Gizartearen zati hau...	- Desgaituen taldea/gizataldea - Dibertsitate funtzionala duen pertsona, bestelako gaitasunak dituzten pertsonen taldea, gaitasun desberdinak dituzten pertsonen gizataldea...

6. Ahal dela, egin ikusgai emakumezkoak.

 INKLUSIBOA	 EZ HAINBESTE
- Desgaitasuna duen emakumea, ikusmen-urritasuna duen emakumea, desgaitasun psikosoziala duen emakumea... - Desgaitasuna duten gizon-emakumeak. Desgaitasuna duten emakumeak eta gizonak	- Testu/hitzaldi osoan zehar <i>desgaitasuna duten pertsonak</i> soilik erabiltzea emakumezkoak aipatzea esanguratsua denean



Hizkera inklusiboa eta LGTBIQ+ kolektiboa



Oinarrizko kontzeptu batzuk

LGTBIQ+ siglaren oinarrian lesbiana, gay, transexual, bisexual, intersexual eta *queer* hitzak daude. + ikurrak adierazten du kontzeptu gehiago ere biltzen dituela sigla horrek, ez dituela den-denak esplizituki adierazten. Beste forma batzuk ere baditu, letren ordena aldatuta, baina LGTBIQ+ eta LGBTIQ+ dira gehien zabaldu direnak.

Gai konplexua da, kontzeptualizazio dinamikoan ari baita. Beharbada horregatik, ezjakintasuna dago, neurri batean, kontzeptu zabal horretan biltzen diren gizataldeak modu egokian definitzeko eta haiei erreferentzia egiteko erabili beharreko hizkerari dagokionez. Berebiziko garrantzia du pertsona bakoitzaren nortasuna behar bezala adierazteak, hizkera egokia erabiliz. Helburu horrekin, zenbait oinarrizko definizio eta gomendio bildu dira atal honetan (iturriak bibliografiaren atalean ageri dira). Lehen, funtsezkoa, *sexu* eta *genero* kontzeptuen arteko bereizketa:

Sexu: Pertsonak ar edo eme gisa garatuko dituen ezaugarri psikofisikoen eta organoen multzoa.

Genero: Kulturak eta gizarteak sexu bakoitzari ezartzen dioten rola.



Transexual: Bere ezaugarri biologikoengatik jaiotzean ezarri zaion generokoa ez baizik bestekoa sentitzen dena. Laburturik, “trans”.

Intersexual: Gizonen eta emakumeen ezaugarri fisiko sexualak, bienak, berez garatu dituenak.

Transgenero: Bere ezaugarri biologikoengatik jaiotzean ezarri zaion generokoa ez baizik bestekoa sentitzen dena, edo ez genero tradizional batekin eta ez bestearekin identifikatzen ez dena. Laburturik, “trans”. Kontzeptu horrekin lotuta, **Zisgenero:** Bere ezaugarri biologikoengatik jaiotzean ezarri zaion generokoa sentitzen dena. Laburturik, “zis”.

Queer: Sexu eta genero kategoriak eta identitate eta orientazio sexualak kulturak eraikiak direla dioen teoria kritikoa, binarismoaren kontrakoa; haren jarraitzailea.

Trantsizio: Pertsona transgenero bat identifikatuta sentitzen den generoaren arabera bizitzen hasten den aldia, horretarako zenbait ekintza eginda: izena aldatu, hormonak hartu, sexu-ezaugarriak aldatzeko ebakuntzak edo kirurgia plastikoa egin, lege-agiriak (gidatzeko baimena, jaiotza-ziurtagiria...) aldatu eta abar.

Genero-binarismo/generoaren banaketa bitar: gizon eta emakume, maskulino eta femenino kategoria baztertzailak ezartzen dituen sistema, pertsona guztiak bi horietan sailkatuta.

Bestalde, zenbait eragileren irizpideak bilduta, honako gomendio orokor hauek eman daitezke:

- Genero-identitateari dagokionez, pertsonak bere burua izendatzeko eta sailkatze-ko erabiltzen duen modu bera erabili. Ez erabili *gizon* edo *emakume* tratamendua, ezta horietatik eratorritako edo horiekin lotutako beste edozein ere, ez badator bat pertsona jakin horren genero-identitatearekin, edo ez badu onartzen generoaren banaketa bitarra.
- Ez egin sexu-orientazioaren aipamenik, testuinguru zehatz horretan esanguratsua ez bada.



- Ez erabili *trabesti*, *transexual* edo halakorik, non eta pertsona horrek ez dituen termino horiek erabiltzen bere burua izendatzeko.
- Egokiagoa da *trantsizio* edo *genero-berrespena* erabiltzea, *sexu-aldaketa* edo *ebakuntza egindako pertsona* edo *operatua* edo halakoak erabiltzea baino.
- Genero batetik beste baterako trantsizioa egindako pertsona batzuek nahiago dute *gizon* edo *emakume* izenda ditzaten, prozesuaren xede den generoa aintzat hartuta, *trans* baino.
- Ez da egokia *hermafrodita* erabiltzea *intersexual* adierazteko.
- Saihestu kutsu peioratiboa izan dezakeen edozein izendapen.

LGTBIQ+ zenbait jarraibide eta gomendio:

 INKLUSIBOA	 EZ HAINBESTE
- Erabili pertsona bakoitzak bere burua izendatzeko edo aurkezteko erabiltzen duen modua, bere genero-identitatearen arabera. - Genero batetik besterako trantsizioa egindako pertsona batzuek nahiago dute gizon edo emakume izenda ditzaten, trans baino. - Trantsizioa, genero-trantsizioa, genero-berrespena. - Pertsona intersexual - Ez egin aipamenik pertsonaren sexu-orientazioari, testuinguru jakin horretan beharrezkoa edo esanguratsua ez bada.	- Gizon/emakume tratamendua ematea, sexu biologikoaren arabera, pertsona horren genero-identitatearekin bat ez datorrenean, edo generoaren banaketa bitarra onartzen ez badu. - <i>Transexual</i>, <i>trabesti</i> edo halako izendapenak erabiltzea, pertsona horrek halakorik erabiltzen ez badu bere burua izendatzeko. - Kutsu peioratiboa izan dezaketen izendapenak erabiltzea. - Sexu-aldaketa, ebakuntza egindakoa, operatua... - Hermafrodita - Pertsonaren sexu-orientazioari erreferentzia egitea, harira ez datorrenean, edo heteroarautik kanpokoa denean bakarrik.

Hizkera inklusiboa eta etnia, ezaugarri fisiko edo jatorri jakin batzuetako gizataldeak




Oinarrizko kontzeptu batzuk

Etnia kontzeptuak adierazten du ezaugarri fisiko antzekoak dituzten gizabanakoen multzo bat, zenbait ezaugarri soziokultural erkide dituen, hala nola hizkuntza, kultura, erlijioa, erakundeak, balioak edo ohiturak.

Egokiagoa da etniaz eta ezaugarri fisikoez hitz egitea, arrazaz baino. Izan ere, zientziak ezbaian jarri du arrazaren kontzeptua, giza espeziearen dibertsitate genetikoaren ideia hobetsita (Pérez Iglesias, 2019). Horrenbestez, ezaugarri fisikoez hitz egiten dugu, belaunaldiz belaunaldi transmititzen diren bereizgarri fisiko, larruazalaren kolore edo fisionomia antzekoak dituzten gizabanakoen multzoei erreferentzia egiteko.

Jatorriak, berriz, pertsona baten abiapuntuari egiten dio erreferentzia, ezaugarri fisikoak gorabehera.

Bereizkeria da erabiltzen den hizkeraren bidez gizatalde horiei buruz estereotipoak eta etiketak eta rol negatiboak zabaltzea, izan gizatalde horiek etorkinak, etnia minoritarioetakoak, edo ezaugarri fisiko jakin batzuen jabe. Bereziki zaindu beharrekoak dira oharkabeen talde osora hedatzen diren ezaugarri eta kalifikatiboak.



Bestalde, litekeena da hitz batzuk hasieran neutroak izatea baina denborarekin kutsu peioratiboa hartu izana, edo alderantziz, gizatalde batek hitz hori aldarrikatu eta beretzat hartu duelako. Adibidez, *koloreko pertsona* erabiltzen da *pertsona beltza* ez esatearren, baina eufemismotzat jo daiteke, eta ikuspegi etnozentrista salatzen du. Eufemismoa da, orobat, *Saharaz hegoaldeko pertsona* erabiltzea *pertsona beltza* saihestearren.

Azkenik, azpimarratzekoa da gizatalde jakin batzuetako emakumeek jasaten duten bereizkeria anizkoitza, eta, horrenbestez, beharrezkoa da haiek ikusgai egitea, bera-riaz aipatuta (adibidez, ijito etniako emakumeak, emakume eta gizon etorkinak...).

Etnia, jatorria, larruazalaren kolorea, sineskera, ideologia eta abar,
bakar-bakarrik aipatu behar lirateke testuinguru jakin horretan
beharrezkoa edo esanguratsua denean, eta ez, besterik gabe, ohikoaz
edo nagusiaz kanpoko denean

Ezinbestekoa da hitz bakoitzaren esanahia ondo ezagutzea, hitz egokia erabiltzen asmatzeko. Hona hemen definizio batzuk:

Arabiar: Arabieraz mintzatzen den herri-multzoko kidea; herri horiei dagokiena. Herrialde arabiarizat hartzen dira Ipar Afrikakoak, Arabiar penintsulakoak eta Ekialde Hurbilekoak.

Musulman: Mahomatarra, Mahomak erakutsi zuen erlijioaren jarraitzailea. Islamaren jarraitzailea. Ik. Islamiar.

Islamiar: 1) Islamari dagokiona. 2) Islamaren jarraitzailea.

Islamismo: 1) Islama; islamaren kultura. 2) Gizartearen esparru guztietan islamaren legea ezartzearen alde egiten duen mugimendu politiko-erlijiosoa.

Fundéuren arabera, zuzenbidea eta politika lege islamikoan oinarritu behar direla aldarrikatzen duten ideien multzo heterogeneoa da islamismoa gaur egun. Lege islamikoak interpretazio ugari onartzen ditu, ez soilik muturrekoak. Islamismoa, beraz, izan daiteke moderatua, erradikala, indarkeriaren aldekoa eta abar.

Islamista: Integrismo musulmanari dagokiona; integrismo musulmanaren jarraitzailea.

Fundéuren arabera, islamista da islamismoaren aldekoa, edozein dela ere haren korrontea edo joera. Horren arabera, islamistak moderatuak edo erradikalak izan daitezke, besteak beste.

Definizio horietatik eratortzen denez, *musulman* eta *arabiar* hitzak ez dira bata bestearen sinonimo; izan ere, arabiarren artean batzuk musulman edo islamiar dira erlijioz, eta beste batzuk, berriz, kristauak, budistak, ateoak eta abar. Bestalde, musulman guztiak ez dira arabiarak. Bestalde, bereziki zaindu beharrekoa da *islamiar* eta *islamista* hitzen erabilera zuzena.

Azkenik, aintzat hartu beharreko ideia bat: etnia, jatorria, larruazalaren kolorea, siniskera, ideologia eta abar, bakar-bakarrik aipatu behar lirateke testuinguru jakin horretan beharrezkoa edo esanguratsua denean, eta ez, besterik gabe, ohikoaz edo nagusiaz kanpokoa denean.



Etnia, ezaugarri fisiko edo jatorri jakin batzuetako pertsonak zenbait jarraibide eta gomendio:

 INKLUSIBOA	 EZ HAINBESTE
– Pertsona etorkinak – Arauz kanpoko egoera administratiboan dauden pertsona etorkinak. – Pertsona beltzak. – Saharaz hegoaldeko pertsonak edo Saharaz hegoaldeko Afrikatik etorritakoak (jatorria adierazi nahi denean). – Arabiar jatorriko pertsonak, arabiarrak... – Musulmanak edo islamiarrak (erlijioaz ari garenean). – Ijito etniako pertsona, <i>rom</i> edo <i>romá</i> herrikoak, erromani herria edo komunitatea, ijito herria, ijitoa...	– Paperik gabekoak, paperik gabeko pertsonak, dokumentaziorik gabeak, legez kanpoko pertsonak, papergabeak... – Koloreko pertsonak. – Saharaz hegoaldeko pertsonak edo Saharaz hegoaldeko Afrikatik etorritakoak ("pertsona beltza" saihestearren erabiltzen denean). – Musulmanak, islamiarrak, islamistak... arabiar hitzaren sinonimo gisa. – <i>Islamiar</i> eta <i>islamista</i> nahastea edo behar bezala ez erabiltzea. – <i>Ijito</i> erabiltzea irain gisa, edo <i>maltzur</i>, <i>amarrutsu</i> adierazteko. – Erlijioa, ideologia, jatorria, egoera administratiboa edota ezaugarri fisikoak aitatztea, testuinguruan esanguratsua ez denean, edo nagusiaz edo ohikoaz kanpoko denean soilik. – Kutsu peioratiboa izan dezakeen edozein hitz edo esapide erabiltzea, edo hitz neutroak erabiltzea baina ahozko komunikazioaren gainerako faktoreak behar bezala zaindu gabe.

- Ahal dela, egin ikusgai emakumezkoak gizataldeen barruan.

 INKLUSIBOA	 EZ HAINBESTE
– Noizean behin txertatu <i>emakume errefuxiatuak</i>, <i>ijito etniako emakumeak</i>, <i>gizon-emakume etorkinak</i>, <i>marokoar jatorriko emakumeak eta gizonak</i>... eta halako esapideak.	– Testu osoan izendapen orokorrak erabiltzea, bereizkeria anizkoitza jasaten duten gizataldeen egoera ikusgai egin gabe: <i>errefuxiatuak</i>, <i>ijito etniako pertsonak</i>, <i>etorkinak</i>, <i>marokoar jatorriko pertsonak</i>...

Bi hizkuntza ofizialetan jardutearen berezitasunak



Eusko Legebiltzarraren jarduna elebiduna da. Komunikazioa eta testugintza euskaraz eta gaztelaniaz egiten dira, eta ugariak dira, lan-prozesuetan, hizkuntza batetik besterako joan-etorriak. Halakoetan, komeni da, batetik, hizkuntzaren zuzentasun orokorra zaintzea, eta, bestetik, hizkera inklusiborako irizpideak egoki erabili ditugun aztertzea, sorburu-hizkuntzatik xede-hizkuntzarako igarobidean alferrikakoak edo arrotzak diren zamak edo oharkabeko inertziak hartu gabe.

Izan ere, gaztelaniaren eraginez, zenbait **erabilera oker** hedatzen ari dira generoaren adierazpideari dagokionez. Ikus zenbait adibide:

- *Mila esker, **presidenta** andrea* > *Mila esker, **presidente** andrea/lehendakari andrea*
- ***Aitonek** zaindutako haurrak* > ***aitona-amonek** zaindutako haurrak*
- *Ikastolako **aiten** elkartea* > *ikastolako **gurasoen** elkartea*
- *Espainiako **erregeen** bisita* > *Espainiako **errege-erreginen** bisita*



Gaztelaniaz ere aurki daitezke zenbait erabilera oker, esaldi hauetan bezala:

- Los **aitas** están preocupados por la vuelta al cole de sus hijos.
- Hay niños en casa ya al cuidado de sus **aitites**.

Bestalde, gaztelaniaz hizkera inklusiboa erabili nahian bikoizketak saihesteko erabiltzen diren estrategia batzuek albo-ondorioak eragin dituzte euskaraz. Horregatik entzuten edo irakurtzen ditugu *pertsona eskatzaileak*, edo *hautzaroaren defendatzailea*.

Izan ere, gaztelaniaz izen kolektibotara jotzen da sarritan, bikoizketak saihestearren:

- los profesores y las profesoras > el profesorado
- los alumnos y las alumnas > el alumnado
- los niños y las niñas > la infancia
- el solicitante o la solicitante > las personas solicitantes

Eta hortik, itzulpen mimetiko, euskarara pasatzen dira:

- los profesores y las profesoras > el profesorado > irakaslegoa*
- los alumnos y las alumnas > el alumnado > ikaslegoa*
- los niños y las niñas > la infancia > haurtzaroa*
- el solicitante o la solicitante > las personas solicitantes > pertsona eskatzaileak*

Euskarak, ordea, ez du estrategia horren beharrik, eta naturalagoa zaio kasu horietan irakasleak, ikasleak, haurrak edo eskatzaileak erabiltzea.

- los profesores y las profesoras > el profesorado > irakasleak
- los alumnos y las alumnas > el alumnado > ikasleak
- los niños y las niñas > la infancia > haurrak
- el solicitante o la solicitante > las personas solicitantes > eskatzaileak

Laburpen modura:

- Adi gaztelaniaren **interferentzia** sortutako erabilera okerre.

 INKLUSIBOA	 EZ HAINBESTE
– Aitona-amonek zaindutako haurrak – Ikastolako gurasoen elkarte – Espainiako errege-erreginen bisita – Mila esker, presidente andrea/lehendakari andrea – Eskatzaileek aurkeztu beharreko dokumentazioa – Irakasleak, ikasleak – Haurren defendatzailea	– Aitonek zaindutako haurrak – Ikastolako aiten elkarte – Espainiako erregeen bisita – Mila esker, presidenta andrea – Pertsona eskatzaileek aurkeztu beharreko dokumentazioa – Irakaslegoa, ikaslegoa – Haurtzaroaren defendatzailea

Generoa: modu orokorrean edo markatuta

Demagun gure jardunaren testuinguru jakin batean gaztelania dela jatorrizko hizkuntza, eta esaldi hau edo antzeko bat hartu dugula abiapuntu:

*Detenido **un taxista** por conducir ebrio* (Jaka, 2013).

Goiko esaldi hori ikusirik, inork ez genuke zalantzarik egingo, ez bi aldiz pentsatuko, esaldia euskaraz ematerakoan:

Taxi-gidari bat atxilotu dute, mozkorturik gidatzeagatik.

Bestela gerta daiteke, ordea, beste esaldi honen aurrean:

Detenida una taxista por conducir ebria.

Hor, gehienoi, zalantza sortuko litzaiguke, *taxi-gidari bat* itzuli, edo *emakumezko taxi-gidari bat*. Bitxia da, baina aurreko esaldian, gehienoi ez zaigu burutik pasatu *gizonezko taxi-gidari bat* itzuli behar ote genukeen, gaztelaniazko maskulino hori orokorra edo partikularra ote den, alegia. Euskaraz, berriz, zenbaitetan gertatzen zaigu femeninoa markatu egiten dugula, beharrik gabe, edo, behintzat, beharrezkoa den edo ez gogoetarik egin gabe. Maskulinoarekin ez zaigu gertatzen, generikotzat barneratuta daukagulako (Jaka, 2013).

Etengabe erabakiak hartu beharra dago itzultzerakoan, eta erabaki zuzena testuinguru bakoitzaren baitan dago

Ikus orain beste adibide hauek:

Las cuidadoras de las personas dependientes

Las trabajadoras de las residencias de Gipuzkoa

La asociación de empleadas del hogar





Hiru izendapen horietan, kolektibo feminizatu batzuk dira hizpide gaztelaniaz, horregatik daude femeninoan. Euskaraz jartzerakoan, ordea, honela itzultzen ditugu:

Mendetasun-egoeran dauden pertsonen zaintzaileak

Gipuzkoako egoitzetako langileak

Etxeko langile en elkartea

Izan ere, euskarak ez du generorik markatzen lanbide-izendapen horietan. Adibide zehatz horiei begira, esan ote liteke euskarakoan ez dela bistaritzen gizatalde horien feminizazioa?

Azken ideia bat hausnarketarako: gaztelaniaz, zenbait legebiltzarkidek femeninoa erabiltzen dute, batzuetan, izen generiko modura. Ikus adibide hau:

El derecho a la huelga de las trabajadoras

Testuinguru orokor batean, **Emakumezko langileen greba-eskubidea** itzuliko genuke. Haatik, jakinez gero gaztelaniaz balio orokorra eman nahi izan zaiola esaldiari, **Langileen greba-eskubidea** itzuliko genuke, hartara bakarrik izango bailuke balio orokorra euskaraz.

Orain, berriz, egin kontu ondorengo esaldi hauetan guztietan euskarakoa dela jatorrizkoa, honela:

Taxi-gidari bat atxilotu dute, mozkorturik gidatzeagatik

Mendetasun-egoeran dauden pertsonen zaintzaileak

Esaldi horietan ez da ageri genero-markarik, eta esaldiak ez baizik eta testuinguruak zehazten du, zehaztekotan, generoa zein den, maskulinoa, femeninoa, edo biak, eta, horrenbestez, nola eraman behar liratekeen gaztelaniara.

Ondorio gisa, azpimarratzekoa da hizkuntza batetik besterako joan-etorrietan erabakiak hartu beharra dagoela etengabe, eta erabaki zuzena testuinguru bakoitzaren baitan dagoela.

Euskaratik gaztelaniarako interpretazioa

Interpretazioari dagokionez, azpimarratzekoa da Eusko Legebiltzarrean soilik euskaratik gaztelaniarako norabidean egiten dela, alegia, genero-markarik gabeko hizkuntza batetik, genero-marka darabilen beste hizkuntza batera.

2017ko urtarrilaren 17an Legebiltzarreko Mahaiak erabaki zuen ahal den neurrian hizkera inklusiboa erabil zedin, osoko bilkura eta batzordeetako eztabaidetan, aldi bereko itzulpena egiterakoan. Hori dela eta, interpreteek eskura dituzten baliabide guztiak erabiltzen dituzte xede-hizkuntzan, gaztelanian, hizkera inklusiborako irizpi-deak aintzat hartzeko. Haatik, kontuan hartu behar da sarritan hitzaldien trinkotasunak eta abiadurak mugak jar diezazkioketela interpretearen jardunari, eta halakoetan ezinbestekoa dela hizkuntza-ekonomiara jotzea.



Bibliografia



4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa. *EHAA*, (42), 3217-3268.

Alvarez-Uria, A. (2004). Euskara eta diskriminazio sexuala. *Jakin*, (142), 47-61.

Barquín, A. (2008). *Euskararen erabilera ez sexista*. Vitoria-Gasteiz: Emakunde.

Berabera (2019/01/02). *Termas Bera Bera abenduko kronika: Garaipena atzaparkatu nahian*.

Berria Taldea (d.g.). *Bereizkeriarik gabeko tratamendua*. Berria Estilo Liburua.

Berria Taldea (d.g.). *Hiztegia*. Berria Estilo Liburua.

Cermin (2017). *Jardunbide egokiak desgaitasunen bat duten pertsonenganako interakzioan*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.

Cocemfe, Cocemfe-Navarra eta Nafarroako Parlamentua (2019). *Hizkera inklusiboaren gida. Desgaitasuna duten pertsonen buruz hizkera zuzena, begirunetsua eta adostua erabiltzeko eta sexismo-rik gabe komunikatzeko jarraibideak*.

- Europako Parlamentua (2018). *Gender-neutral language in the European Parliament*.
- Euskaltzaindia (azken eguneraketa 2019-07-09). *Euskaltzaindiaren Hiztegia*.
- Eusko Jaurlaritza (2017). *Mendekotasuna Hiztegia*.
- Fábregas, M., Tafur, A., Guillén, A., Bolaños, L., Méndez, J. L. eta Fernández de Sevilla, P. (2018). *Osasun mentalaren gainean komunikatzeko estilo-gida: hitzek badute zer esana*. Madril: Salud Mental España konfederazioa.
- Fernández, J. (2018). *Euskararen erabilera inklusiboa*. UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritza.
- Fundación ONCE. (2018). *Guía para un uso no sexista del lenguaje. Incluye una mirada especial al empleo y a la discapacidad*.
- Fundéu (2007). *Árabe, musulmán, islámico, islamista, yihadista... diferencias*.
- Fundéu (2011). *Islámico e islamista, diferencia*.
- Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa.
- Hik Hasi. (2018/09/13). *Euskara ez al da sexista?*
- Ikasbil (2017/12/18). *Maialen, andre eta jabe*.
- Imaz, M. (2014/03/30). *Desgaitasuna*. 31eskutik bloga.
- Jaka, A. (2013). *Itzultzaileon kontzientzia feminista... ala matxista?* 31 eskutik bloga.
- Martinez, N. eta Rojo, I. (2009). *Oztoporik gabeko komunikaziorako gidaliburua*. Iparhegoa Ikasketa Sindikaletarako Fundazioa.
- Moreno, J.C. (2012). *Acerca de la discriminación de la mujer y de los lingüistas en la sociedad. Reflexiones críticas de J.C. Moreno Cabrera*.
- Mugen Gaietetik (2018). *Aniztasunean hezte*. Eranskina.
- Orebe (2011). *Hizkuntzaren erabilera ez sexistarako jarraibideak*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Pérez Iglesias, J. I. (2019). *Las razas humanas no existen. The Conversation*.
- Plena Inclusión (2017). *Plena Inclusión erakundearen jarrera terminologiarekiko*.
- Terminologia Batzordea (2008). *Discapacidad normalizazio-txostena*.
- Zubeldia, L. (2013-03-17). *Maistra-lana*. Gara. *Kritiken hemeroteka*. Armiarma.



EUSKO LEGE BILTZARRA
PARLAMENTO VASCO